

This is an Open Access document downloaded from ORCA, Cardiff University's institutional repository: <https://orca.cardiff.ac.uk/id/eprint/144302/>

This is the author's version of a work that was submitted to / accepted for publication.

Citation for final published version:

Calzada, Igor 2020. The role of the social movements in social ennovation (SI): Euskaraldia, as a digital panopticon / Gizarte mugimenduen rola gizarte berrikuntzan: Euskaraldia, panoptiko digital gisa. BAT Soziolinguistika Aldizkaria 115 (2) , pp. 85-114.

Publishers page:

Please note:

Changes made as a result of publishing processes such as copy-editing, formatting and page numbers may not be reflected in this version. For the definitive version of this publication, please refer to the published source. You are advised to consult the publisher's version if you wish to cite this paper.

This version is being made available in accordance with publisher policies. See <http://orca.cf.ac.uk/policies.html> for usage policies. Copyright and moral rights for publications made available in ORCA are retained by the copyright holders.



Calzada, I. (2020)

The Role of Social Movements in the Social Innovation:

Euskaraldia, as a Digital Panopticon/Gizarte Mugimenduen Rola Gizarte Berrikuntzan:

Euskaraldia, Panoptiko Digital Gisa, BAT Soziolinguistika Aldizkaria/Journal

115(2): 85-114. DOI: 10.13140/RG.2.2.35980.05763/5.

**Gizarte Mugimenduen Rola Gizarte
Berrikuntzan (GB): Euskaraldia, Panoptiko
Digital Gisa**

Igor Calzada*

*Senior Researcher and Policy Adviser, Urban
Transformations ESRC & Oxford Programme for the
Future of Cities, University of Oxford and Centre for
Advanced Studies and Digital Economy Unit,
DG Joint Research Centre, European Commission.*

*Corresponding author:

igor.calzada@compas.ox.ac.uk; +44 (0) 7887
661925

ORCID: www.orcid.org/0000-0002-4269-830X

Facebook: <https://www.facebook.com/icalzada>

Twitter: <https://www.twitter.com/icalzada>

LinkedIn: <https://uk.linkedin.com/in/icalzada>

Characters: 37.544 / Wordcount: 4.595

To cite this article/ Artikulua erreferentziatzeko
erabili honako zita:

Calzada, I. (2020), Gizarte Mugimenduen Rola
Gizarte Berrikuntzan (GB): *Euskaraldia*, Panoptiko
Digital Gisa // The Role of Social Movements in
the Social Innovation (SI): *Euskaraldia* as a Digital
Panopticon. *BAT Aldizkaria* 114(2): 00-00.

DOI: 10.13140/RG.2.2.35980.05763/3. [Preprint]

Forthcoming, CC BY-NC 4.0

Eskertza: Autoreak honako erakunde eta
pertsonek eskertu nahiko lituzke. Artikulu hau
burutzeko lagungarri izan baitzaizkio beraiekin
burututako lankidetzak eta izandako harremana.
Euskaltzaleen Topaguneko Kike Amonarriz,
Jasone Mendizabal, Iker Martinez de Lagos,
Mikel Ozaita, eta Garbiñe Garagarza.
Soziolinguistikako Klusterreko Belen Uranga eta
Maialen Iñarra.

To cite this article:

Calzada, I. (2020)
The Role of Social Movements in the Social Innovation:
Euskaraldia, as a Digital Panopticon/
Gizarte Mugimenduen Rola Gizarte Berrikuntzan:
Euskaraldia, Panoptiko Digital Gisa,
BAT Soziolinguistika Aldizkaria/Journal
115(2): 85-114. DOI: 10.13140/RG.2.2.35980.05763/5.

Gizarte Mugimenduen Rola Gizarte Berrikuntzan (GB): *Euskaraldia*, Panoptiko Digital Gisa

Igor Calzada

Oxford Unibertsitatea

igor.calzada@compas.ox.ac.uk

Sarrera-data: 2020-03-25 / 2020-04-27

Laburpena. Artikulu honek gai arantzatsu bat jorratzen du: Gizarte Berrikuntza (GB). Egun euskalgintzan diharduten gizarte mugimenduen rola eta euren antolakuntza ereduak, baina bereziki, post-COVID gizartearen disrupzioek mahai ganean jarri dizkiguten erronka digital, urbano, eta politikoen aurrean, beraien estrategia orokorra zein izan behar duen zedarritzen saiatzen da artikulu hau. Ez da preskriptiboa, eta beraz are gutxiago izan da idatzia normatiboa edo dogmatikoa izateko. Hain zuzen, kontrakoa du xede nagusi: egungo errealitatea azkar irakurritz, GBtik eratorriak diren kontzeptu anabasa bat aplikatuz, iradokitzailea izateko bokazioarekin izan da sortua; ez tresneria zehatz bat edo beste proposatzeko (ariketa hori ez dagokio autoreari, eragileei baizik). Helburu horrekin jomugan, 'action research' metodologiarekin informazioa jaso eta landa-lana honelaxe burutua izan da 2020ko Otsaila eta Maiatzaren artean: (i) artikulu honek Euskaltzaleen Topaguneak autoreari Topaldia 2020an¹ partehartzeko (2020ko Otsaila) egin zion gonbitean² abiapuntua eta ondorioz, (ii) Soziolinguistikako Klusterrak, BAT aldizkarian argitaratzearekin² borobiltzen da, ikerketa-ekintza prozesuaren emaitzak plazaratuz. Tartean eragile estrategikoen erabaki eta ekintzen jarraipena aztertu da 2020ko Maiatza arte. • **Hitz gakoak:** *Gizarte Berrikuntza; Gizarte Mugimendu Likidoak; Commons; Euskaraldia; Panoptiko Digitala; Teknopolitika; Post-COVID Gizarte; Gizarte ekintzailetasuna; Aktibismoa; Kooperatibagintza.*

Abstract. This article draws on the thorny topic of the Social Innovation (SI). Particularly, it revolves around the role of those social movements promoting the Basque language not only in relation to their organisational models but also to their holistic strategy to tackle inevitably digital, urban, and political challenges surfaced by the disruptions stemming from the post-COVID society. This article actually aims to reflect upon and spark a fruitful debate on the current momentum by applying an amalgamation of SI concepts to the reality of the Basque Country. This article examines the social experimentation project entitled 'Euskaraldia' taking place biannually, in which people related to the Basque language, Euskara—through the profiling of two interdependent roles, active speakers as 'ahobizi', and early-adopters, practitioners, and listeners as 'belarriprest'—are encouraged to speak more intensively Euskara over an 11-day period (www.euskaraldia.eus) by overcoming motivational, contextual, and psycho-social boundaries and threats imposed by the diglossic lock-in. • **Key words:** *Social Innovation; Liquid Social Movements; Commons; Euskaraldia; Digital Panopticon; Technopolitics; Post-COVID Society; Social Entrepreneurship; Activism; Co-operativism.*



1. HITZAURREA: GIZARTE BERRIKUNTZAZ (GB)

I

Egunotan ‘Post-COVID Gizartearen’ sorreraren testigu izaten ari gara (Calzada 2020a; Lupton 2020). 2020ko Martxoan, Euskal Herrian ezohiko ‘normalitate berri’ bati eman zitzaion hasiera. Euskal Herritik harago ere, mundu osoan zehar, eta mundu oso zabaletik Euskal Herrira. Birus honek, mundua eta globalizazioaren pertzepzioa (Harari 2018; Innerarity 2016), eta nabarmenki, gure egunerokotasuna zuztarretatik aldarazi duela pentsa liteke: etxeetatik atera gabe, telelana eginez (ahal duenak, dena esan behar baita), mugikortasuna errotik mugatuz, eta zuzeneko hartuemanak orotara ia desagertu direnean. Fikziozko pelikula batetik ateratako gidoi distopiko bat dirudi, baina ez, erreala da, oso gertukoa

***Pandemiak,
hiperkonektutako
gizarte honetan
derrigortutako
teknologia
berriekiko
dependentzia
ekarri digu.***

guztiontzat eta oso urruna gure buruetan, duela oso denbora gutxirarte. Fikzioa erregai zuten euskal idazleek, muturraren aurrean dugun erre-
alitatea begiratu besterik ez dute egin behar orain; fikzioaren apologetek
errealitate fikzionatuarekin egingo baitute topo.

Pandemiak, hiperkonektutako gizarte honetan (Floridi 2015), derrigor-
tutako teknologia berriekiko dependentzia eguneratua ekarri digu.
Baina nola mantendu gure gizarte kapitala, euskal gizarte komunita-
rioaren balioa galdu gabe (Calzada; Cobo 2015)? Batzuk (baikor edota
inkontzienteenak, agian proportzio berean) diote, honakoa, bolada ba-
terako kontua besterik ez dela. Beste batzuek (dokumentatuagoak, eta
zuhurtziaz akaso), ez dute ezer esaten; beldur dira lehenengoak oker
egongo ote diran, luzarorako den krisi pandemiko estrukturala aurrei-
kusiz. Gure bizitzek, nola erantzungo diete krisi pandemiko honek
sortu dituen ondorio lazgarriek? Bistatzen al ditugu, erresilientzia ko-
munitarioaz aurrera egiteko estrategiak? Eta gure bizitzaren erdigunean
dagoen *euskaraz bizi nahi dut* leloa eta euskeraren bizirautea bera gure
hartueman aldakorretan, nola kokatzen dugu koordinada berri eta eze-
zagun hauetan? Sarri esan izan zaigu Gizarte Berrikuntza (GB) prestatu
behar genuela, gizartearen zirrikituetan barna, gure hizkuntza-estrata-
giak egikarizatzeko. Agian, unea iritsi da; eta ez, nahi dugulako (hori
litzateke egokiena), baizik eta (sarri gertatzen den moduan, tamalez)
beste erremediorik geratzen ez zaigulako orain.

Tartean galdetu beharko genioke gure buruei: Baina pandemia egoera
hau pasako al da? Betirako geratuko al da gurean? Behin-behinekoa ala
behin-betikoa al da? Eta erdibideko fenomeno batzuek? Argi dagoena
da gure hizkuntza-ohitura eta praxiarengan eragin zuzena izan duela
eta seguruenik izango duela ere etorkizunean.

Donald Rumsfeld-ek (Ford eta Bush-en agindupean, EE.BB.etakoa De-
fentsarako Idazkari izandakoak) honakoa ezberditzen zuen: 'Ezaguna
dugunaz, badakigu. Eta badakigu baita ere, ezagutzen ez ditugun fe-
nomenoak ere esistitzen direla. Baina...harago...ez dakigu zertaz ere
ez dakigun zipitzik ere ez'. Nago, azken eremu horren baitan murgiltzen
ari garela une honetan. Ez dakit argitarapen hau plazaratzen denean,
2020ko Uztailaren 13an, zein izango den egoera; hala ere, Euskaltzaleen
Topaguneak gonbidatuta, Topaldia 2020an eman nuen hitzaldiaren ari-
tik, fenomeno global eta lokala jada den COVID-19aren ildotik arilkatzea
komenigarria iruditu zait. Izan ere, GBren beharra, gure bizitzen erdi-
gunean jartzen baitu: zaintza bai baina baita ere beste aktibazio moduko
bat (Soziolinguistikako Klusterra 2020). Ekarpenean zientifiko honen xedea

beraz, GB hizpide izanik, jakin behar dugunaz eta nola jokatzera eraman behar gaituen aztertzea izango da.

Orainartean, hamarkada luzeetan zehar, GB gobernantzaren ukendu miresgarri gisa ulertua izan da, estatuaren babes publikoaren eta merkatu pribatuaren arau lehiakorren artean zegoen espazio lauso eta sarritan kontraesankorra legez (Calzada 2013a). Berau definitzea ariketa makala ezezik guztiak asebate uztea ezinezko bihurtzen du ia kasu guztietan. Bestalde, Euskal Herrian, historikoki, euskarak eta bere gizarte hezurmamitzeak GBrekin izan du lotura zuzena: Ikaskolen mugimendua, kooperatibagintza, Korrika, bertsoaritza, Euskaren Unibertsoa... eta orain Euskaraldia. Hala ere, GBz ari garenean, euskarak testuinguru historiko eta sozial ezberdinetan izaten ari den rol eraldatzaile ezberdinduari ere erreparatu beharko genioke.

Honako artikulua, egungo egoera ezohiko honetatik abiatuta, GBk bete beharko lukeen papera zehaztuko du ikerketa eta politiken arteko zubilana eginez. Zehatzago esanda, artikulua darabilen hipotesia, Topaldia 2020an aurkeztu zen moduan, probokazio bat izatera heldu zitekeena, orain ordea, normalitate ez-normalaren parametroetan ulertzen hasiak gara (Subirats, 2020): Duela 40 urte burutu zen GB eta oraingoak ez dituzte baldintzagai berdinak. Hipotesi horri lotuta zenbait ikerketa galdera azaltzen dira segidan: Gizartea eratzen duten eragileez ari garenean, gizarte mugimenduei soilik dagokie erronkei erantzun estrategiko bat ematea dagoeneko aro digital, *anti-global*, eta urbanoan? Ezezaguna dugun testuinguruan, zein estrategia finkatu eta zein antolakuntza-eredu aplikatu? Egoera honetan, aktibismo, ekintzailetasun, eta kooperatibagintzatik zein ekarpen egin litezke (Calzada 2013b)? Berdinak ahal dira ekarpenak aipatu diren hiru soslaien arabera? ['Glosario kontzeptual egokitua' deritzon atalean definitzen dira hiru kontzeptu hauek].

Egungo egoeratik begiratuta, artikulua honako erantzuna eskeintzen du hastapenetik: gizarte mugimenduen rola estrategikoki erradikala beharko luke izan, berrasmaketa bat ekarri beharko luke euskalgintzaren antolakuntza-eredu baina nagusiki estrategiak ekintzatik garatzeko. Ondorioz, eraldaketa etengabea dugun nazioarteari jarraipena egitea ekarri beharko luke: gurea, munduari egiten diogun ekarpen internazionalista ere badelarik. Agian orain inoiz baino presenteago izan beharko genukeen printzipioa litzateke. Aitzakia gutxiago beraz, zilbor-dependentzia (eta oasi *vascoa*) gaingitzen hasteko (behingoz).

***Euskal Herrian,
historikoki,
euskarak eta bere
gizarte
hezurmamitzeak
gizarte
berrikuntzarekin
izan du lotura
zuzena: euskarak
testuinguru
historiko eta
sozial
ezberdinetan
izaten ari den rol
eraldatzaile
ezberdinduari ere
erreparatu
beharko genioke.***

**Erresilientzia
erresistentzia, eta
eraldaketa
soziala
helburutzat
duten,
hegemoniaren
kontrako ekintza
eta diskurtso
alternatiboak
sortzeko
gaitasuna da.**

Artikulu honetan, GB, sinpleki, eta modu zuzen batean, egoera jakin batean ‘zirrikituak bilatzea’ bezala defini liteke. Alegia, Raymond Williams antropologo galestarrek zioen moduan, ‘GB, berariaz erradikala izatean datza; alegia, konbentzitzen ibiliz etsituta bukatu baino, esperantza balizko egitean datza’ (1983). Historian zehar, GBk definizio eta moldaera asko izan ditu. Artikulu honetan, autore anitzen ekarpen eguneratuak bilduta (Angelidou; Psaltoglou 2017; Bartels 2020; Bund et al. 2015; Calzada; Keith 2018; Engelbrecht 2018; European Commission 2010; Mihci 2019; Moulaert et al. 2007; Pel et al. 2019; Poppen; Decker 2018; Preskill; Beer 2012; Sabato et al. 2017; Schubert 2018; Terstriep et al. 2020) bi zati osagarrik definituko dute GB:

(i) Erresilientzia, erresistentzia, eta eraldaketa soziala helburutzat duten, hegemoniaren kontrako ekintza eta diskurtso alternatiboak sortzeko gaitasuna da (Adibide gisa: #EtxealditikEuskaraldira);

(ii) Gaitasun honek aldi berean, bitartekaritza baldintzak sortu behar ditu eragile ezberdinen artean (testuinguru urbano, politiko, eta digital aldakorren ondorioz) erabakitze-prozesu demokratiagoak erdieste aldera.

2. OBJEKTUA: GIZARTE MUGIMENDU LIKIDOAK

GB, ez da ‘berria’. Historian zehar, gizatalde ezberdinek eraginda, nazioarteko geolokalizazio eta testuinguru anitzetan sarritan gertatu den fenomeno bat izan da (Novak 2019; Westley et al. 2017). Halaber, azken hamarkadan bereziki, Europar Komisioaren jarraibide nagusienetako bat izan da politika publikoen formulazioetarako (European Commission 2013a, 2013b; Rabadjieva; Butzin 2019). Besteak beste, honako egitasmo, sare eta proiektu aintzindariak ahalbidetu ditu: TEPsIE (2012), SINGOCOM (2018), Digital Social Innovation (2018) eta ENoLL (2017). Autore asko izan dira berau perspektiba ezberdinetatik jorratu dutenak (Grimm et al. 2013; Moulaert; MacCallum 2019; Moulaert; Mehmood 2020; Moulaert et al. 2017; Mulgan 2006; Nicholls et al. 2015; Van de Broeck et al. 2019) eta baita ere Euskal Herriko testuinguru konkretuari aplikatutako analisi makro, meso, eta mikroak (Calzada 2011; 2013a; 2015; 2016a; Casado da Rocha; Calzada 2015; Echevarría 2008; Heales et al. 2017; Keith; Calzada 2018; Martínez Moreno 2018; Unceta et al. 2016). Laburbilduz, Joan Subirats-ek GB *egokia* definitzeko 10 osagai zehazten ditu: (i) pizgarriiduna, (ii) estrategikoa, (iii) integrala/transbertsala/intersektionala, (iv) eraginkorra, (v) partehartzailea (ahalduntzeko gai dena), (vi) fundamentuzkoa (kosmetikatik harago), (vii) trans-

ferigarri/errepikagarria, (viii) plurala (aktore anitz kontuan dituen), (ix) eskalagarria, eta azkenik (x) ahultasunari aurre egiteko gai dena.

Euskal Herrian Topaldia 2020 jardunaldietan partehartzeko parada izan nuen. Artikulu hau gonbidapen horren erantzun zuzena da eta berari zor zaio bere osotasunean. Bertan, tokian-tokiko eragileak eta herri/auzoetako euskara-taldeek jarduna aztertzei aukera izan nuen ekintza-ikerketa aplikatuz. Honako ondoretara iritsi nintzen diskurtsoa aztertuz: (i) Gizarte aktibazioaren ardatz estrategikoa barneratuta zuten eragile ia guztiek (Domanski et al. 2020; Subirats 2020); (ii) Antolakuntza eredu lokalak partekatuz, GBren hazia landatzen ari dela pentsa liteke beraz; (iii) eta azkenik, auzo eta herriko antolatutako nukleo txiki eta autonomoak saretuta egonik, ikasketa prozesu gurutzatu bat bermatzen ari dela ondorioztatu liteke beraz. Hala ere, bilakaera horretan, antolakuntza eredu oso antzerakoak partekatzen zituzten eragileek, oso granularitate eta ezberdintasun gutxi azaltzen ziren heuren deskribapenetan, eta oraindik gardenagoa zirudinea: eragileen (interes-talde edo *stakeholder*) inguruko identifikazioak ez ziren egiten (Christmann 2020; Colli; Kerremans 2017). Oso modu orokortu eta anonimoan hitzegiten zen orohar, eragile zehatzak zeintzuk ziren axola ezpalu bezala. Horrek eraman gaitzake planteatzera, gizarte mugimenduen rola eta zentralitatea GBn: (i) estrategia(k) behar d(ir)a, gizarte mugimendu gisa autokontzientzia bezala funtzionatzen hasteko, beti ere inguruko interes-taldeek ekosistema oso ondo identifikatuta baldin badago bederen. Ikerketa gehiago behar da alor honetan, ez baitirudi oso garatua dagoenik esparru hau, ikerketa lerro garrantzitsu bat irekitzea ezinbestekoa da beraz.

GBren muinean gizarte esperimentazioa dago (Evans et al. 2016), hain zuzen ere lurralde eskaletan zehar, mikro-meso-makro artean, goitik eta beheara eta behetik gora bideratu behar dena, mailanitzat den gobernantza bat erdiesteko xedearekin (Calzada et al. 2013). Esperimentazioa etengabeko gaitasuna da prototipatzeko (Hillgren et al. 2011). Euskaraldia, konturatzen bagara, eskalagarria izan da, bere jatorrizko gizarte esperimentuaren hasierako bertsioetik abiatuta: (i) Lutxo Egiak proposatu zuen lehenik, (ii) Egiako auzunearekin eskalagarri egin eta autokonfiantza jaso zuen gerora komunitatearen partetik, eta azkenik, (iii) Lasarte herrian aplikatu zen ahobizi/belarriprest soslaiak eratuz (Egia 2020). Beste auzo eta herrietara zabaltzeko izan da gerora eta tartean, *action research* gisara ikertu liteke faktore osagarriekin (Forester et al. 2019). Baina, zer egin une honetan Euskaraldia-ekin, COVID-19a dela-eta³

Gizarte mugimenduen rola eta zentralitatea gizarte berrikuntzan: estrategia(k) behar d(ir)a, gizarte mugimendu gisa autokontzientzia bezala funtzionatzen hasteko, beti ere inguruko interes-taldeek ekosistema oso ondo identifikatuta baldin badago bederen.

**Posible al da
#COVID19 ak
aurrez-aurreko
#euskara
elkarrekintzak
mugatu
dituenean,
@euskaraldiak
eremu digitala
baliatuz ERE
mehatxuak
aukera/
ahulguneak
arnasgune
bihurtzea?**

alerta egoera piztu denean Euskal Herri osoan eta aurrez-aurreko hartueman guztiak erabat mugatuak daudenean (Iovino et al. 2020)? Agian eraldaketa digitalek, lagun gaitzakete.

COVID-19aren alarma egoera piztu eta berehala, Twitter-ren bidez zabaldu dudana inkesta labur batek honakoa galdetu du, sektore digitalak GBren aktibitate izateko dituen aukerak aztertzeko: 'Posible al da #COVID19 ak aurrez-aurreko #euskara elkarrekintzak mugatu dituenen, @euskaraldia k eremu digitala baliatuz ERE mehatxuak aukera/ahulguneak arnasgune bihurtzea?' Erantzunak honela banatu dira 2020ko Martxoaren 28tik 31ra bitartean iraun duen landa-lanaren bidez: %49ak 'aukera asko ikusten ditu', %30ak 'Buf, oso zaila ikusten du', %13ak 'again, osagarri gisa bezala soilik', eta azkenik, %8ak aitortu du (egoera malapartatua medio) 'ahaztuta zegoela'. Datuen arabera beraz, gizarte esperimentazio hau GBtik proposa litekeen prototipo baten abiapuntu bat da: gizarte mugimenduen rola, muturreko egoera batean inspiratua izateko (ere) (Popov et al. 2017; Voorberg et al. 2015)

Euskararen presentzia esparru digitalean nabarmena izan da euskalgintzan urteetan zehar, zenbait eragileeri esker (Calzada 2020b). Gero badago oraindik faktore trinkoago bat, balazta moduan funtzionatzen duen inertzia moduko bat: soziolinguistikan eta bereziki euskalgintzan, zuzeneko hartueman linguistikoei eta presentzialitateari ematen zaio gehienbat hizkuntza-erabileraren kategoria (Marko 2014). Baina gure hizkuntza iharduera sareetara bideratu bada... nola aztertu gorako joera duen digitalizazio fenomeno atzeraezin hau?

Ikerketa honen haritik konfirma liteke eragileekin egindako jarraipenari esker, COVID-19ak suposatu duen amenazuaren aurrean bi lorpen izan direla: (i) erantzun erresiliente eta azkar batekin buelta eman zaio egoerari; (ii) digitalizazioa probestu da horretarako eta presentzialtasunari alternatiba bilatu zaio (#EtxealditikEuskaraldira). Hala ere, bigarren honek, alboko-kalteak ere sortze bidean da: gure etxeetako intimitateetara sartu da, baimenik eskatu gabe eta beste erremediorik ezean. Horrek alboko-kalte nabariak ekarriko ditu. *Data-Euskaraldia* edota *Euskaraldia-App* prototipajeak enkriptazioa eta *blockchain* tresneria izan lezake aukeren artean. Baina definitze-funtzional hau, Euskaltel edota bestelako hornitzaile teknologikoei (Elhuyar, Tecnalia, etab...) dagokie, ezta inolaz ere artikulu honi hori zehaztea.

Presentzialitate eta aurrez-aurrekoan oinarritutako hizkuntza-politikak hegemonikoak izan dira. Gai honen inguruan, iritzigile, pentsalari, eta

akademikoak ekarpen mamitsuak egin dituzte beti (Altuna 2013; Amonnarriz 2019; Baztarrika 2009; Martinez de Luna 2013; Odriozola 2011; Zalbide 2011)... baina eta gune digitaletan ere saiatu eta porrot egiten duten probatzaile, ekintzaile, aktibista... kooperatibistak (!), ba al daude nonbait ordezkatuak? Eta bi taldeetako ordezkariak elkarrekin, porrot egiteko bildurrik ez eta esperimentatzeko ausardia hartuko balute? Agian hizkuntza-politika berri aktibistago bati egin beharko genioke lekua. GB abian jartzeko, honelako dinamika eta paradigma berritua ere beharrezkoa dugu ezjakina den hortzemuga honetan. Gai sozialetarako berriki sortu den *Scottish Tech Army* adibide bat izan daiteke: hila-bete batean 30 proiektu eta 700 bolondres lortu dituzte.

Hemen, ene iritzi xumean, hankamotz gaudela uste dut eta ezohiko egoera honek gizarte gisa, erronkapean jartzen gaitu: Aukerak egon litezke lurraldetasun eta gizarte aktibazioaren arteko sintesian, gizarte esperimentazioa ahalbidetzeko lanabes digital, eta zehatzago esanda, datuen gobernantza eta bisualizaziori erreparatuko bagenio. Europar Komisia aspalditik dabil bidea erakusten, datuek bere horretan balioa sortzen dutela argudiatuz (Carrara et al. 2015). Baina zer eta nola bideratu Euskaraldirako prototipo bat? Nondik hasi? Zeintzuk lirateke bere funtzionalitate eta erabilerak? Agian aplikazio berezi (*EuskaraldiaApp*) bat Euskaltel-ek lagundu eta HPS-k begiztatua, Euskaltzaleen Topaguneak sarean kudeatu ahal dezan? Sintesia ez da oso urruti ibiliko hemendik. Eta kudeaketa (finantziazioa) eta herri-batzordeak aktibitateaz gain (organizazioa), post COVID-19ak utziko digun gizartean aritzeko lanabes eta tekno-politika berri bat behar dugu (Calzada 2020b), baita euskalgintza, euskararen biziberritze eta aktibaziorako ere. Ezin dugu egin iraultza lanabes eta mentalitate berdinarekin. GBak horri 'reset' egitea ere eskatzen du, zer garen eta nora iritsi nahi dugun ahanzi gabe noski. #EtxealditikEuskaraldira egoera 'prekario' baina guztiz erresiliente honen isla garbia izan da. Krisi pandemikoak, euskara, eskubide linguistikoak, intimitate/pribatasuna eta zaintza/osasunaren ekuazioaren garrantzia jarri du modu gordinean gure aurrean. Ez da teknologia, teknologia erabili behar delako: tekno-politikak (Calzada 2020b) teknologia bera aldarazten du tokian tokiko gizarte testuinguruetara. Ea ba gurean zein den sintesia. Baina seguru ez dela aurretik genekarrenaren hezurduraren oinordekoa. Horratx, GBren funtsa: zirrikietan barna gure prototipajea aurkitzea.

Testuinguru honetan, eta bereziki, muturreko egoera baten aurrean, itzelezko garrantzia dute gizarte mugimenduek, gizarte zibil antolatuaren isla gisa. Moulaert eta MacCallum-ek (2019) azaldu bezala, GBk

**Aukerak egon
litezke
lurraldetasun eta
gizarte
akribazioaren
arteko sintesian,
gizarte
esperimentazioa
ahalbidetzeko
lanabes digital,
eta zehatzago
esanda, datuen
governantza eta
bisualizaziori
erraratuko
begenio.**

**Testuinguru
estatiko batean
eraldaketa
printzak izaten
dira baina
disrupzioekin
alderatuz gero,
oso ahulak dira.**

gizarte mugimenduen eskutik hiru dimentsio landu ditzake: (i) giza beharrak asetzeko abilezia erakustea; (ii) botere-harremanetan aldaketak eraginaraztea; eta (iii) komunitate lokalen ahalbuntzea eraldaketa sozio-politiko ahalbidetzeko. Ondorioz, gizarte mugimenduen ekarpena honakoa beharko luke izan: (i) Interes-talde anitzen, baita ideologikoki hitzeginda ere (Subirats 2020), arteko GBren bitartekaritza-funtzioa eragitea da eta aktibaztea gizarte esperientazio bidez; (ii) hizkuntza-politiken agenda berri eta eguneratua eraginaraztea botere publikoekin elkarlan zuzenean; (iii) euskararen garapen eta biziberritzean zuzeneko eragina izaten ari diren eraldaketa urbano, politiko, eta digitalak identifikatu, aurreikusi, eta barneratzea; eta azkenik, (iv) euskara ondare bizi eta aktibo komunala kontsideratuz (jada ezbaian egon beharko ez litzatekeena bestalde), dinamika publiko eta pribatutik harago, euskara *commons* bat bihurtzea *de facto*.

Hala ere, urte luzeetan zehar Manuel Castells-ek (egun Unibetsitateetarako Ministroa Espainiako Gobernuan) argudiatu duen bezala (2009), gizarte mugimenduek bilakaera nabarmena izan dute ingurune digitala ez delako soilik 'beste online hori' baizik eta Floridi-k deitzen dion moduan *OnLife* bat da (Floridi 2015). Banaezina, *online* eta *offline* bateraturik aurkitzen ditugu (#EtxealditikEuskaraldia horren lekuko izan liteke). Paradoxikoki, urte berean, *Unplugging*, GBtik aintzindari izan zen ideia sortu zen ere (Calzada; Cobo 2015). Okerra da beraz dikotomia hori oraindik sustengatzea. Horrek irakurketa berezia merezi du euskalgintzatik: Sarritan, herri eta gizarte mugimenduen irakurketa ideologizatu egien ondorioz, aldaketa disruptiboak aurreikusteko analisiak ez dira ematen (Luxan et al. 2014). Testuinguru estatiko batean eraldaketa printzak izaten dira baina disrupzioekin alderatuz gero, oso ahulak dira. Beraz atal honen bukaeran gizarte mugimenduak likidotze prozesu batean ulertu behar ditugula argudiatzen du artikuluak (Bauman 2000). Izan ere, gizarte mugimendu likidoak gai izango dira aurrean ditugun eraldaketa digital, politiko, eta urbanoei aurre egiteko, erresilientzia baliatuz, egoerara egokituz eta garapen bideak irekiz (Bauman 2002).

Baina zergatik behar ditugu, are nabarmenago 'post-COVID gizartearen' ondorio lazgarriekin, erresilientziaz jardun ahal izateko Euskaraldia bezalako gizarte esperientazio bat aurrera aterako duten gizarte mugimendu likidoak (Purcell 2013)? Aurrerantzean, euskara aurrez-aurreko hartuemanetara soilik mugatzea posible izango al da? Pandemiaren ostean aurkituko dugun gizarteak, zein hizkuntza-hartueman bermatuaraziko dizkigu? Ezinbestean bada ere, *OnLife*, *Unplugging* edota gizarte

hiperkonektatuarekin bizitzen ikasi beharko dugu, gure (oraindik gizatiarra izan nahi duen) mundu bat eratzen joateko, ezta? Nola erantzun behar diote egoera honi gizarte mugimenduek, orohar, eta bereziki, euskalgintzan diharduten hainbat eta hainbat hiritar euskaltzaleek? Antza denez, aurreikusiezin eta sakontasun handi batekin hezurmimatu den disrupzio bat gertatu da (Conversi; Moreno 2020). Jatorria ez da izan eta ondorioak ere ez dira izango azalekoak. Hala ere, hizkuntza-politikarako agenda berriek derrigorrean txertatu beharko dituzte aurrerantzean eskala globalean gertatu eta guri zuzenean gure egunerokotasun lokalean eragiten diguten eraldaketa digital, urbano, eta politiko hauek. Gizarte mugimenduen rola beraz eraldaketa horien aurrean tokian tokiko estrategia erresilienteak zedarritu eta interes-taldeen arteko bitartekaritza eta zubigintza lanak egitea litzateke. Euskal Herrian elkarren artean banaezin eta erkatuak dauden eraldaketak hiru multzotan aurreikusi beharko lituzkete gizarte mugimenduek, norberak bere kokagunean, irakurketa partikularra eginez baina tokian tokiko gainontzeko gizarte mugimenduekin erantzun bateratua emanez:

(i) *Eraldaketa digitalak*: Gizarte komunikazioak egun sare sozialen bidez gertatzeaz gain, gure iharduera asko aldi berean datu bihurtzen ari dira (van Dijk 2014). Datuen ekosistemak kudeatzen hasi beharko ginateke hizkuntza irizpide batetik abiatuta (Calzada; Almirall 2020). Denbora luzean zehar, 2.0 paradigmarekin datuak partekatu ditugu sare sozialetan (*Facebook* eta *Twitter*-ren nagusiki; HPS-Eusko Jaurlaritza 2010) eta orain non daude eta zer egiten dute *Big Tech* multinazional erraldoiek gure datuen historikoekin? Euskararen erabiltzaile digitalen datuek ba al dute merkatu baliorik? Nola bermatu eskubide digitalak hizkuntza eskubideekin bateraturik (Calzada 2018d)? Euskarazko datuen pribatasunak zein tratamendu behar du izan? Egongo ote dira aurki gurekin euskaraz hitzegiten duten robotak, again Osakidetzan, telemedikuntzarako (post-COVID-19 robotak)? Eskatuko al diegu euskaraz jakin dezatela (ere!)? Laboral Kutxa, Euskaltel edota Eroski-rekin ditugun hartuemanetan? Multinazionalak gure datuak 'lapurtzen' dituztenean, zein da euskarak jokatzeko duen rola? Delako *Big Data*, *Blockchain* eta *Data Analytics*-ak nola jar daitezke euskararen negozioazio-boterea trinkotzearen alde? Gauzen-Internet-aren pean (*Internet of Things*, *IoT*), bizimoldea euskararekin nolakoa izango da, makina eta pertsonen artean? Hitzegingo al diogu gure hozkailuari euskaraz? Ez da erokeria. Adimen artifizia eta Gauzen-Internet-a dira.

(ii) *Eraldaketa urbanoak*: Hizkuntzaren erabilera lurralde baldintzagaiei menpe dago hein handi batean. Eta beraz lurraldegintza adimendun bat eskatzen du hirietan gertatzen diren eraldaketak landa eremura eta alderantziz modu

Ezinbestean bada ere, OnLife, Unplugging edota gizarte hiperkonektatuar ekin bizitzen ikasi beharko dugu, gure mundu bat eratzen joateko.

**Euskalgintzan
diharduten
gizarte
mugimendu
likidoen rola
beraz, GBz
eraldaketa
urbano, digital,
eta politikoak
identifikatu,
barneratu eta
modu erresiliente
batean
erantzutean
datza.**

orekatu batean kudeatuz (Calzada 2016b). GBren bitartez, euskararen erabilera, genero, gentrifikazio, gizarte berdintasun eza, migrazio mugimendu eta iharduera ekonomikoarekin gurutzatu beharko genuke.

(iii) *Eraldaketa politikoak*: Nazioa ez da entitate homogeen eta emanda datorrigun utopia bat, egunero sortzen dugu, gure jardunarekin, gure elkarrekin-tzarekin hiritar gisa. Hizkuntza, bestalde, geroz eta gehiago algoritmoen sare konplexu batzuetan jaso eta kodetzen da. Euskal Herria, hartara, hiru barruti administratiboetan banatua (eta bi estatuen artean partekatua) dagoen nazio algoritmiko amankomun bat dela esan genezake, lan hipotesi moduan (Calzada 2018a; 2018b): Noiz arte itxoingo dugu gure hiru barrutien hartuemanak blockchain teknologia bidez kidetzen hasteko? Ez al da orain unea hori burutzeko, hiritarren osasun premiak direla-ta? Hizkuntzak izango du ba lekuri eza? Nola lotu, nola aurreratu ekuazioan diseinuan (*by design*) egoteko, deskartez baino (*by default*)?

3. HIPOTESIA: EUSKARA ‘COMMONS’ BAT BALITZ?

I Euskalgintzan diharduten gizarte mugimendu likidoen rola beraz, GBz eraldaketa urbano, digital, eta politikoak identifikatu, barneratu eta modu erresiliente batean erantzutean datza. Badirudi ‘Post COVID-19 Gizarte’ ez dela aukera soilik, baizik eta antroponoak jartzen digun *reality check*-a, froga alegia.

Alditu askoren arabera, honako krisi sistemiko honek, *commons* edo balio komunaren balioztatze bat ekarri beharko luke (Hardin 1968; Harvey 2011; Ostrom 1990): premia epe motzean, osasun zerbitzuak eta zaintza orokorrean lehenetsiz; epe luzean, neoliberalismo edota ekonomia ortodoxia neoklasikoaren zuzenketa orokor bat eginez (Birch et al. 2020). Krisi honek zuzenean gure ongizate sistemaren erdigunea ez-tandarazi du, gure bizitza-moldea eta estolderiak erroto eta zuzen-zuzenean berraztertzea eskatuz. Baina...eta zein da berrazterketa sakon honetan, euskarak, balio sozial eta komunitario gisara beteko lukeen lekua? Ikusi dugu, emergentziazko egoeran, euskara bazterreko edo ikustezin bihurtu dela zenbait erakundek salatu duten moduan. Ikus-entzunezkoen eta kultur kontsumoa inoiz baino altuagoa denean, biderkatu egiten da euskararen ahulezia. Ohiko joera da erdera, gauza garrantzitsuak erderaz hobe. Koronabirusaren faktura euskarari pasako zaio murrizketetan eta bitartean bere erabilera nabarmen jeisten ari da, emergentzietan euskara ez omen delako lehentasuna (Amezaga 2020). Krisi hau barneratzen ematen ditugun denbora eta analisiak (Zubiaga 2020), ez al lukete izan behar, euskarari beste paradigma eguneratu ba-

tekin begiratzeko aukera? Atzokoa eta betikoa azaldu beharrean, ezer gertatu ezpalitz moduan jokatzuz, luzarora gertatzen ari denaren aurrean entzungor edo inkonsziente izan gaitezke? (Azkarate 2020) Ez litzateke oso gomendagarria izango.


Agian, Euskaraldiak suposatu duen susperraldiaz baliatuz (nahiz eta egoera latzak bizi une hauetan), ez al da ba aukera bat, inoiz baino gehiago, prototipatzen hasteko, gizarte esperimentazioa abian jartzeko (Hillgren et al. 2011)? Hartara, GBren ikuspuntutik lortuko genuke euskara *commons* bat bihurtzea, betiko debate amaitezinak gaindituz. Edo hobe dugu dena baretzen denean, orduan euskara txertatzea? Baina ez al da ba euskara gure bizitza eta zaintza kolektiboaren elementu gakoetako bat? Euskara jabetza eta erabilera komunala bada, babestu eta jabetza komunal gisa kontsideratu beharko genuke orduan egoera honetan ere ezta? Agian horretarako euskara kodetutako datu bihurtzeko aukera dugu, *commons* bat bihurtuz; alegia, *data commons* bat (Calzada; Almirall 2019; Barcelona City Council 2018). Euskaraldiak datu-bidezko hizkuntza praktikak kodetu eta jabego komunala eratzeko abiapuntua izan liteke (Macintyre 2020), une honetan muturreko egoera *offline*-a ezinezkoa dela ikusita. Gerora gizarte esperimentazio gisa erabili litekeen inbertsio bat litzateke, euskararen egiturazko gizarte kapital digital eta likido gisa (Dennis; Hall 2020).

Baina nondik hasi? Egun *commons* bat bihurtzeko oinarrizko urratsa, interes-taldeen (*stakeholders*) arteko zubigintza asimetrikoak probokatu behar dira; honek, herrigintza asimetriko bat ekarriko luke etengabeen desadostasuna kudeatzeko gai dena, baina sistema bera geratu gabe. Hor dago erronka. Euskal Herrian, denbora gehiegi ematen da norberaren arrazoia, dogma moduan, inposatuarazten, baina oso denbora gutxi, adostasunetara iristen, zubigintza eginez (Calzada; Bildarratz 2015). GB, zirrikituak bilatzea bada, gauza 'alternatiboak' probatuz, esperimentatuz, lanabesak eguneratu behar ditugu, interes-taldeen artean herrigintza asimetriko hori gerta dadin.

Azken urteotan, hiri eta lurraldeetan eraldaketa handia gertatu da zentzu askotan (Calzada; Cowie 2017; Calzada; Keith 2018). Eta agian, eraldaketarik funtsezkoena, bitartekari/zubigile rola agerpena izan da (SUI 2018), GB Digitalak berak sustatuta (Kreische et al. 2018). Bala-kaera bat gertatu da lurralde mailan GB aplikatzen zuten interes-taldeen identifikazioan: (i) orainartean, partzuergo pribatu-publikoa (*private-public-partnership*, PPP) izan da nagusia, berau sektore pribatu, publiko, eta akademikoaren (zientzia eta teknologia barne) arteko partzuergo

**Euskal Herrian,
denbora gehiegi
ematen da
norberaren
arrazoia, dogma
moduan,
inposatuarazten,
baina oso
denbora gutxi,
adostasunetara
iristen,
zubigintza
eginez.**

gisara ulertua (Triple Helix); (ii) gero, gizarte zibila gehitzen saiatu den eredua esperimentatzen hasi da han eta hemen, batipat European (Quadruple Helix); azkenik (iii), GB ulertu da ezin dela gertatu zubigile (Calzada; Bildarratz 2015) eta bitartekaririk gabe (Penta Helix). Bitartekari horiek soslai ezberdinekin ager daitezke: (gizarte) ekintzaile, aktibista, kooperatibista, edo enanblatzaileak. Azken batean beraien egitekoa, heringintza asimetrikoak ahalbidetzea da, interes-taldeek arteko bitartekaritza erdietsiz (Penta Helix) (Calzada 2018e; Calzada; Cowie 2017). Horrela litekeena da tokian tokiko gobernantza eredu oso bestelakoak aurkitzea.



Irudia 1. Penta Helix: Commons (Calzada; Cowie 2017; Keith; Calzada 2018; Calzada 2018e)

Euskalgintzak, Euskaltzaleen Topaguneak koordinatzen dituen auzo eta herrietako gizarte zibileko euskara taldeekin elkarlan sinkronizatuan, badu Penta Helix-a aktibazteko lurralde-hezurdura nahikoa. Azken batean lurralde ekosisteman, euskara talde horien lana, zubigintza eta bitartekaritza bideratzea litzateke tokian tokiko interes-taldeekin. Baina nola egin, COVID-19ak aurrez-aurreko hizkuntza elkarrekintzak zeharo mugatu dituenean?

Ohar bat egin nahiko nuke hemen: apur bat harrigarria da urteetan zehar, bitartekoak izanda, hizkuntzen ekologia hain trinko landu denean, bestalde hain ahul izatea GBako datu azpiegitura eta erakundetzea (Calzada; Almirall 2020)? Zergatik ote?

4. PROTOTIPOA: GIZARTE BERRIKUNTZA DIGITALA > EUSKARALDIA, PANOPTIKO DIGITAL GISA

I Euskara *commons* bat bihurtuz, gizarte mugimendu diren euskara taldeen sare-antolakuntza egiturak autoeratu direla ondorioztatu daiteke. Baina nola egin Euskaraldiarekin saiakera bat GB Digitalaren prozesu esperimental bat abian jarritz? Arestian Euskal Herrian eta Europako beste zenbait lekuetan egin diren laborategi eta antzerako proiektuekin ikus litekeen moduan (Calzada 2018c; 2018d), gakoa bitartekaritza eta zubigintza egiten duten eragileak, tokian tokiko beraien ekosisteman eragina sortzea da. Euskaraldiak izan duen harrera positiboa ikusita, esperimentazioak beste atal, agian ezezagunagoa, ireki beharko luke muturreko egoera honetan. Gogora dezagun, zein zen artikulu honen galdera operatiboa: 'Posible izango al da, #COVID19 ak zuzeneko hartuemanetan izaten ari den ondorioekin, #euskaraldia k eremu digitala baliatuz (ERE) mehatxuak aukera bihurtzea eta ahulguneak arnagune?'

Eremu digitala ez dago gure bizitzetatik eta egunerokotasunetik urrun; hain zuzen ere, gure egunerokotasuna sortzen du, guk nahi, edo askotan konsziente ez izan arren (ere). Garai batean, mundu *online*-a, borondatez bisitatu egiten zen klikatuz. Gaur egun ordea, patrikan daramagun sakeleko telefonoa da gutaz gehien (ia gu baino gehiago!) dakien datu-base enkriptatua. Sakeleko telefonoa edukitze soilak, egoera hauskor batean ipintzen gaituelarik: gure datu guztiak, *Facebook* eta *Google* bezalako erraldoiek xurgatzen dituzte hirugarren erosle bati gureak diren datu horiek salduz aldi berean (guk jakitun izan gabe). Non geratzen dira, *WhatsApp*, *Facebook*, *Twitter*, *Google*, *Amazon*, etab-ak erabiltzen ditugunean sortzen ditugun 'gure' datuak? Sistemak xurgatzen ditu. Nola egin subirautea teknologiko bat Europaren aterkipean, euskara izanik gure *commons*-a? (Calzada 2019a) Horratx gure erronka!

Hizkuntzaren ekologiaren perspektiba huts batetik bi galdera/hausnarketa egin beharko genituzke: (i) aurrez-aurreko hizkuntza hartuemanak nola bideratuko ditugu eremu digitalean? (ii) zein da egoera honetan, datuen pribatasuna eta jabetza, hizkuntza-eskubideen, eta eskubide digitalen arteko harremana? Eta zer egin GB Digitala estrategia gako gisa egoera honi erantzun eta aurea hartzeko.

Artikulu honek zera proposatzen du: Euskararen Unibertsotik, Euskaraldia, panoptiko digital gisara eratzen joatea apurka-apurka, prozesu mailakatu gisara. Gizarte kapital egiturazko bat eratuz datu-ekosistema bidez. Euskaraldia mugarri bat izan liteke eraikuntza jarrai eta mailakatu

**Euskara
commons bat
bihurtuz, gizarte
mugimendu diren
euskara taldeen
sare-antolakuntza
egiturak
autoeratu direla
ondorioztatu
daiteke. Baina
nola egin
Euskaraldiarekin
saiakera bat
GB Digitalaren
prozesu
esperimental bat
abian jarritz?**

***Euskal hiritar,
izan belarriprest
edo ahobizi,
izango litzateke
panoptikoa
ikusteko gai
izango
litzatekeena, datu
uholdea modu
bolondres batean
sortuz eta
donazio bidez
emanez.
Euskaraldia data
altruism deitzen
den joera oso
berritzaile gisa
uler liteke beraz.***

honetan. Honetarako, Europar Batasuneko Datuak Babesteko Arautegi Orokorra (DBAO) (Calzada 2019b), 15 eskubide digitalak (Calzada 2018c), eta datu eta subiranotasun teknologikoa (Calzada 2019a) oso presente izan beharko genituzke egitasmo berritzaile izateko bokazioarekin diseinuko litzatekeen *Data-Euskaraldia*-rako.

Ez dagokio artikulu honen autoreari honako zehaztasun teknikoetan sartzea: Zein hizkuntza praktika kodetu, datu bilakatu ahal izateko tresneria definitzea, ekimen teknologikoa bultzatzea, alegia, benetako praktikak definitzea. Artikulu honek hasieran aipatu bezala, eragileak gonbidatu egiten ditu gai hau lantzen hastea, ez ordea osagai-zerrenda tekniko bat proposatzea. *Data-Euskaraldia* eta hizkuntza-politikoa teknologikoaren inpaktu eta aurreikuspenak ezinezkoak diren era berean. Hurrengo 5-10 urteko politiken joko-zelaia marraztu nahi du artikulu honek.

Zer da panoptiko bat? Batzuk harritu egingo dira metaforaz, izan ere, Jeremy Bentham-en (Kitchin 2014) ideia izanik, gizatalde konkretu baten jokaera zehatza 'zelatatzea' proposatzen zuen. Bentham-en panoptikoa, arkitektura eta antolakuntza diseinu gisa, kartzela batean aplikatu zen. Panoptikoa, eraikuntza zirkular bat da, non zelatatuak dauden pertsonak banaka bizi diren zeldetan sartuta eta zelatariak posible duen erdian dagoen dorre batetik, zelatatuak egiten dituzten mugimendu guztiak ikuskatzea. Oso metafora potentea da eta eguneratua izan da egungo mundu digitalera (Zuboff 2019), EE.BB. eta Txinak zelatatze masiboan darabilten politika digitalen erakusgarri. Baina zergatik orduan proposatu gizarte esperimentazio gisa, Euskaraldia, panoptiko digital bezala, hain ezkorra den metafora batekin? Arrazoi sorta bat daude: (i) egungo muturreko egoeran, euskararen erabilera muturreko egoera ezohiko batean frogatzen genezake; (ii) bitarteko teknologikoak baino gaitutako giza baliabide asko dago une honetan Euskal Herrian, lankidetzarako gertu, eman diezaiozun aukera euskararekin esperimentatu nahi duen orori; (iii) panoptikoaren bertsio ezkor eta konspiratzaileari buelta ematen badiogu, uler genezake Euskaraldiak *real-time* bidez sor lezakeen datu uholdea itzela izan daitekeela *dashboard*, *data visualisation*, *data analytics*, geolokalizazio, *blockchain*, *Big Data*, trazabilitate, eta hizkuntza-prototipajeari *OnLife* egiteko aukera emanez. Euskal hiritar, izan belarriprest edo ahobizi, izango litzateke panoptikoa ikusteko gai izango litzatekeena, datu uholdea modu bolondres batean sortuz eta donazio bidez emanez. Euskaraldia *data altruism* deitzen den joera oso berritzaile gisa uler liteke beraz. Panoptikoan belarriprest eta ahobiziak izan beharko lirateke beraien datuen jabeak, beraien hizkuntza esperimentazioaren

aktore nagusiak; ahalduntze-prozesu digital erraldoia litzateke emaitza. Eta garrantzitsuago, datu-uholde hori, Euskaraldiaren jabetza litzateke, bertan partehartu duten ahobizi / belarriprest diren euskaltzale / euskaldun hiritar ororena. Euskaraldiak datu horiek kapitalizatu egin beharko lituzke, *Euskaraldia data commons* (subiranotasun teknologikoaren lehen lagin moduan). Horrek esan nahi du, aurrez-aurreko euskara praktika ahantzi behar dugunik? Inolaz ere ez. Baina lehio berri bat eta inbertsio bat egiten ari gara gure denbora eta gure hizkuntza-praktikak eraldatuz, osatuz, gehituz, ez aurrekora mugatuz. Azkenik (iv), esan gabe doa, euskara Europako hizkuntza zaharrenaren leloarekin baino, biziena eta erresilienteenetariko bat dela erakutsiko genioke *Data-Euskaraldia*-ren bidez nazioarteari.

Baina zeintzuk izango lirateke *Data-Euskaraldia* panoptiko digitalaren funtzioak eta beteko lituzkeen helburuak?

(i) Aurrez-aurrekoa eman ezin daitekeen neurrian, berau ahalik eta aurrez-aurrekoena egitea;

(ii) eremu pribatuak dituen abantailak (lotsa ez edukitzea, solaskideak aukeratzeko askatasuna *belarriprest/ahobizi*), anonimotasuna (pribatasuna bermatuz eta enkriptatutako datu pertsonal gisa kontsideratuz), pantailaren atzean, edo mugikorrarekin (*Data-Euskaraldia-App*-aren bidez eta egungo *ContactTracingApp*-en afera gaingiduz) ahalbidetzea;

(iii) ez da *by-default* ulertu behar den sistema bat, baizik aurrez-aurrekoa posible balitz, berau elikatu eta birsortzeko moduko geruza digitala sortzea da proposatzen den prototipoa;

(iv) baina dudarik gabe, balio erantsi handiena sor lezakeena da, denbora oso konkretu batean euskara elkarrekintzak kodetuz sortuko litzatekeen datu anabasa itzela izango litzatekeela. Hor uste dut ez garela ohartzen eskuartean dugun balioaz.

Zeintzuk izango lirateke *Data-Euskaraldia*-ren hasierako osagai funtzionalak. Hiru zehaztu ahal izango lirateke:

(i) *Dashboard* edota erakusleihoa, data *visualisation*-a erakusteko, berau *real-time-data*-rekin elikatuko litzatekeena belarriprest/ahobizi bakoitzaren aldetik.

(ii) Elkarrekintzaren jarraipena eta monitoretza. Hemen sare sozialen bidezko edukia zentralizatu eta etiketatu ahal izango lirateke *Whatsapp*, *Twitter*, *Facebook*, edota *Linkedin* bidez. Geolokalizatzea eta trazabilitatea bermatzea ezinbestekoa litzateke panoptiko digitalak bere funtzioa bete dezan.

Euskaraldiak datu horiek kapitalizatu egin beharko lituzke, Euskaraldia data commons (subiranotasun teknologikoaren lehen lagin moduan).

5. ELIKAGAIA HAUSNARKETA + EKINTZARAKO: DEKALOGO BAT ETA BOST GALDERA

I

Artikulu honek GB eta euskara lotu ditu, 'Post-COVID Gizartearen' ezohiko testuinguruan, digitalizazioak dakartzan aukerak eta mehatxuak azalduz. Egungo muturreko egoera aldakorrean izan badu abiapuntua ere, balio lezake muturreko egoera batetik adimen kolektiboz sortu behar ahal izango lukeen erantzuna kalibratzeko. Gogora dezagun hastapenean azaldu moduan, GB erantzun erresiliente bat eman eta zirrikituak bilatzean datzala. Hau izan da beraz artikularen intentzionalitate guztia. Zeharka, eraldaketa globalek eta zuzenki digitalek (urbanoek eta politikoei), euskara eta hizkuntzaren erabileran izan dezaketen eragina ere izan du aztergai. Dekalogo bat eta bost galderek hausnarketarako eta esperimentaziorako gonbitea izan nahi dute hemendik aurrerakoak ekintza bihurtzeko:

(i) Gizarte mugimenduek, auzoz-auzo eta herriz-herriz, ez lukete zertan antolakuntza eredu berbera izan behar. Aldiz, Euskaltzaleen Topaguneak ahailegin bat egin beharko luke estrategia orokor bat zedarrizten, estrategia asimetriko lokalen uztarketa bat eginez paraleloan.

(ii) Hirugarren atalean azaldu den moduan, interes-taldeen arteko bitartekaritza-zubigintza ahalbidetu ahal izango lukeen Penta Helix-a gomendatzen da erabiltzea, GBren hazia ereiteko nonahi.

(iii) Euskalgintzak apur bat bere domeinutik atera beharko luke eta gizarte gaiekin txertatu hizkuntzaren ekologia bat autoeratz. Horrek ere onura garbi bat ekarriko luke bestalde, GB lortzeko ezinbestekoa den disziplinartekotasuna eta heterodoxia besarkatuz.

(iv) Ondorioz, GBk euskal geografietan azaltzen den aniztasuna hauspotzea ekarri beharko luke, erosotasun guneak ekidinez. Euskaraldiak, besteak beste, agian horregatik ere izan du arrakasta: Erosotasuna/nortasuna erronkekin ordezkatu duelako. Edozein sentitzen zen ondo bere rolaekin, bere erronka partikularekin, eta egokitzapena gakoa izan dela esango genuke, jarrera guztiak inklutsibo/barneratzaile egitearekin.

(v) Artikuluak azpimarra berezia egiten dio gizarte esperimentazioari: horregatik hartzen du kasu-prototipo moduan Euskaraldia. GB ezin da garatu soilik neurketak eginez, erregaia eta errealtatea eraldatzeko errealtatean operatu behar dugu derrigorrez. *Living Lab*-ak, metodologia bezala, oso ongiatorriak beharko lukete izan euskalgintzaren artean (Calzada 2018b) ikerketa lerroa ireki eta sakontzeko.

***Euskalgintzak
bere domeinutik
atera beharko
luke eta gizarte
gaiekin txertatu
hizkuntzaren
ekologia bat
autoeratz.
Horrek ere onura
garbi bat
ekarriko luke GB
lortzeko
disziplinartekota
suna eta
heterodoxia
besarkatuz.***

**Nazioartearekin
zein estrategia
jorratu behar
dugu?
Euskaraldia izan
liteke gure
nazioartera
proiektatzen den
erakuslehioa?**

(vi) Gizarte mugimenduek tokian-tokiko eraldaketak identifikatzea ezinbestekoa da. Hizkuntza-egoera anitza izanik, bere trataera ere berezia izan behar du. *Data-Euskaraldiak* (*EuskaraldiaApp* moduan prototipatua) oso material garrantzitsua ekoiz lezake hizkuntza ekologiaren etnografiak eta hizkuntza politiketan aintzindari izateko datu masiboak lortuz. Euskara taldeak aintzindariak izatea bultzatu behar da, *follower* edo kultura gregarioa alboratu eta gaindituz.

(vii) Europar Batasunak berriki besarkatu du datu estrategia amankomun bat eskualde eta hiri guztietarako, subirautza teknologikoaren bidez, hiritarren eskubide digitalak babestuz (European Commission 2020). Hemendik aurrera datu ekosistemak eratuko dira sektoreka (Calzada; Almirall 2020). Euskara izan daiteke Europa mailan hizkuntza gutxiengotuen artean liderra datu ekosistemak eratzen? Zergatik ez.

(viii) Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako Topaldia 2020an sarritan entzuten ziren GBen aktibaziorako beharrezko soslai eta funtzioak. Hiru dira, ezberdintasunak kontuan izanda soslaiak: (gizarte) ekintzailetasuna, aktibismoa (garai bateko militantzia, egungo *bolondresismoa*), eta kooperatibagintza. Komeni da ezberdintasun hauek kontuan izatea eta dagokiona dagokion unean aplikatzea.

(ix) Nazioartearekin zein estrategia jorratu behar dugu? Euskaraldia izan liteke gure nazioartera proiektatzen den erakuslehioa?

(x) Eta azkenik, *Data-Euskaraldia*, Euskal Herriko auzune, herri, bailara eta hirietan bizi diren euskal hiritarrek elikatu beharko lukete. Adimen artifizialak launduko ote digu bide hori ustiatzen? Ba al ditugu erakunde publikoak lidergoarekin gai hauetan, industria 4.0-tik harago? Agian nazio algoritmiko gisa, unea iritsi zaigu, trena hartzeko (galdu baino lehen!) (Calzada 2018a, 2018b).

Bukatzeko bost galdera politiken bidea argitu eta ikerketa lerroa garrantzeko:

(i) Nola bideratu GBren estrategia asimetrikoa eta gobernantza maila-anitza hiru barruti administratiboetan, modu koordinatu batean eta *blockchain* erabilita?

(ii) *OnLife*-ean gaudenez, posible izango al da euskalgintzako eragileek aurrez-aurrekoa vs digitalaren arteko antagonismo hori gainditzea? COVID-19aren krisiak prozesu hori ezinbestean arinduko ote al du?

(iii) Interseksionalitatea, zein problematikekin, non eta nola?

(iv) Neurketetatik esperimentazio jarrai batetara joko bagenu?

(v) Euskalgintzatik, antolakuntza ereduetatik harago, ezjakina identifikatzeko estrategiak nola abian jarri prospektiba erabiliz?

Glosario kontzeptual egokitua

Artikulu honetan erabiltzen diren kontzeptuak honela definituko genituzke:

- **Gizarte Berrikuntza:** Erresilientzia, erresistentzia, eta eraldaketa soziala helburutzat duten, hegemoniaren kontrako ekintza eta diskurtso alternatiboak sortzeko gaitasuna da. Gaitasun honek aldi berean, bitartekaritza baldintzak sortu behar ditu eragile ezberdinen artean (testuinguru urbano, politiko, eta digital aldakorren ondorioz) erabakitze-prozesu demokratiagoak erdieste aldera.
- **Gizarte Mugimenduak:** Gizarte mugimenduak likidoak behar dutela izan aipatzen da artikuluan, alegia, zirrikituetatik errez iragazteko gaitasuna erakutsi behar dutela. Horrek ere eskatzen du ekintza eta iharduera moldeak berrikustea. Aktibismoa, estrategia, tokian tokiko interes-taldeek ezagutza, eta iharduteko kanal berriak uztartzea dagokie gizarte mugimenduei.
- **Hizkuntza-politika berria:** Hizkuntza-politika berria aipatzen denean, batipat, tekno-politikaren eragin eraldatzaile eta disruptiboa euskararen biziberritzarako politika publikoetan txertatzean egiten da azpimarra. (Gizarte) berritasuna hortan datza agian orain.
- **Gizarte Ekintzailetasuna:** Gizarte ekintzailetasuna tokian tokiko sare ekonomiko, sozial, eta kulturalak aktibaztearekin du zerikusia. Ez du zertan gizabanako bat soilik izan behar (talentuen diskurtso *free-rider*etik harago), eta eredu kolektibistagoak ere barnera ditzake (baina gizabanakoen sare libertarioak izanik motorea). Gizarte ekintzaileak Penta Helix sistemak aktibarazten dituztenak dira, normalean zubigintza erabilita.
- **Zubigintza:** Zubigintzak ezberdinen arteko adostasun/desadostasunak modu sistemiko batean integratuak edukitzean datza. Zubigintza ez da derrigorrean adostasun eta kontsentsua erdiesteko bitartekari bat, baizik eta gatazka onartuz eta irizpide anitzak balioan jarritz, interes-taldeek artean bizikidetza bermatu ahal izateko baldintza da. Zubigintza ondorioz, behetik-gora eta goitik-beherako gobernantza ereduetatik harago, transbertsalitate eta horizontaltasunean oinarritzen da. Zubigintzak ordea, pizgarria behar du, Penta Helix sistema aktibarazteko; ez da bere horretan berez sortzen den

zerbait. Zubigintzarik gabe, erantzun erresiliente bat ematerakoan, posible da sistemak porrot egiteak eta hondamendi soziala gertatzea. Gizarte kapitala zubigintzaren (*bridging*) oinordeko da.

- Aktibismoa: Garai bateko militantzia, egungo *bolondresismoa* da. Maila boluntario batean sisteman eragin politikoa sortzean datza. Aktibismoak balio ideologiko konkretu batzuekin lotuta egoten da. Ez du zergatik eragina lortu, saiatu besterik ez da egiten.

- Kooperatibagintza: Kooperatiben sorkuntza. Bata, lurralde komunitate konkretu batean autoeratzten den gizarte ekintzailetasunean edota biga, aldarri konkretu baten aktibismoa izan dezake jatorrian. Gizarte ekintzailetasun eta aktibismo orok ez du zertan kooperatibagintzara iritsi behar. Kooperatibagintzak erakundetze prozesu formala dakar bere ihardunarekin batera.

- *Data-euskaraldia/EuskaraldiaApp*: Artikulu honek post COVID-19 gizartearen disrupzioaren testuinguruan, Euskaraldiaren atal digitala garatzen hastea proposatzen du. *Data-euskaraldia* izena ematen dio prozesu jarrai horri. Prozesu jarrai bezala eragileei dagokie lan-keta teknikoa. Euskaltzaleen Topagunea (gizarte zibila), HPS (publikoa), eta Euskaltel (pribatua) interes-taldeen gain, baliteke tokian tokiko zehaztasunak kontuan izanda, aurreikusten hastea Penta Helix-aren perspektibatik, beste zenbait interes-talderen partehartzea baita ere. Interes-talde hauen arteko loturak egiteko, bitartekari eta zubigileak eduki beharko lirateke. Epe ertainean, datuak eta *Data-Euskaraldiak* beharrak izango ditu datu azpiegitura eta erakunde gisa kudeatua izan dadin. Bukatzeko esan, *action research* bidez burutu den ikerketa honek, ekarpen xumea egin nahi izan diola gai hau irekitzeari. Agian *EuskaraldiaApp* bidean dugu jada:) eta post COVID-19 euskal gizarteak zirrikitu bat ireki digu eta guk euskara biziberritzeko aukera probestu ere. Hadi beraz! Inshallah. ●

OHARRAK

1. <https://topaldia.topagunea.eus/topaldia-2020/igor-calzada/>

2. Autoreari honako *preprint* bertsioa zabaltzea egokia iruditu zaio, *Bat aldizkarian* argitaratu artean, komentarioak eta ekarpenak jasotze eta txertatze-aldera, artikulua izpiritu eta bokazioarekin bat egiten duelarik. *Preprint* edo behin-behineko bertsioa izanagatik, agertu ahal daitezkeen tipo eta erratak, Ekainaren 2020an argitaratuko den azken behin-betiko bertsioan zuzendu eta orraztuko dira.

3. <https://twitter.com/ICalzada/status/1245302148826632192?s=20>

REFERENCES

- ALTUNA, Belen (2013). *Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren ideia nagusien bilketa*. Andoain: Soziolinguistikako Klusterra.
- AMEZAGA, Josu (2020). “Euskara eta koronabirusa” Faktoria irratsaioa, *Euskadi Irratia*. <https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/faktoria/oso/7119924/josu-amezagaren-sinadura-2020ko-martxoaren-24an-euskara-eta-koronabirusa/> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- AMONARRIZ, Kike (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Tafalla: Txalaparta.
- ANGELIDOU, Margarita eta PSALTOGLOU, Artemis (2017). “An empirical investigation of social innovation initiatives for sustainable urban development”, in *Sustainable Cities and Society*, 33, 113-125. doi:<https://doi.org/10.1016/j.scs.2017.05.016>
- AZKARATE, Miren (2020). “Euskaraldiaren bigarren ekinaldia: Ariguneak helburu”. <https://www.berria.eus/paperekoa/1937/019/003/2020-03-20/euskaraldiaren-bigarren-ekinaldia-ariguneak-helburu.htm#euskaraldiaren-bigarren-ekinaldia-ariguneak-helburu.htm> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- BARTELS, Koen (2020). “Transforming the relational dynamics of urban governance: How social innovation research can create a trajectory for learning and change”, in *Urban Studies*, 0042098019889290. doi:10.1177/0042098019889290
- BARCELONA CITY COUNCIL (2018). *Plan digital del ayuntamiento de barcelona: Medida de gobierno de gestión ética y responsable de datos: Barcelona data commons*. Barcelona.
- BAUMAN, Zygmunt (2000). *Liquid modernity*. Cambridge: Polity.
- BAUMAN, Zygmunt (2002). *Society under siege*. Cambridge: Polity.
- BAZTARRIKA, Patxi. (2009). *Babeli gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra*. Irun: Alberdania.
- BEIER, Raffael. (2018). “Towards a new perspective on the role of the city in social movements”, in *City*, 1-16. doi:10.1080/13604813.2018.1451135
- BENNETT, Elizabeth E., eta MCWHORTER, Rochell R. (2019). “Social movement learning and social innovation: Empathy, agency, and the design of solutions to unmet social needs”, in *Advances in Developing Human Resources*, 21(2), 224-249. doi:10.1177/1523422319827939
- BIRCH, Kean, CHIAPPETTA, Margaret, eta ARTYUSHINA, Anna (2020). “The Problem of Innovation in Technoscientific Capitalism: Data Rentiership and the Policy Implications of Turning Personal

- Digital Data Into a Private Asset”, in *Policy Studies*, 1-20. doi:10.1080/01442872.2020.1748264.
- BUND, Eva, GERHARD, Ulrike, eta HOELSCHER, Michael (2015). “A methodological framework for measuring social innovation”, in *Historical Social Research*, 40(3), 48-78. doi:http://dx.doi.org/10.12759/hsr.40.2015.3.48-78
- CALZADA, Igor (2011). *¿Hacia una Euskal Hiria/Ciudad Vasca? Aproximación desde la Innovación Social*. Vitoria-Gasteiz: Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- CALZADA, Igor (2013a). “Critical Social Innovation in the Smart City era for a City-Regional European Horizon 2020”, in *Journal of Public Policies & Territory P3T*, 2(6), 1-20.
- CALZADA, Igor (2013b). “Knowledge building and organizational behavior: The mondragon case from a social innovation perspective”, in Moulaert et al. *International Handbook on Social Innovation: Collective Action, Social Learning and Transdisciplinary Research*, Chentelham: Edward Elgar. 219-229.
- CALZADA, Igor (2015). *Gizarte berrikuntza: Lurraldegintza estrategikorako*. Zumaia: Translokal. ISBN: 978-84-942752-5-9.
- CALZADA, Igor (2016a). *Decálogo de innovación social abierta y estratégica en acción en el ecosistema de donostia-san sebastián*. Zumaia: Translokal. ISBN: 978-84-942752-8-9.
- CALZADA, Igor (2016b). *HERRI-SMARTIK: La Estrategia Vasca de Territorio Inteligente en el Contexto Europeo Horizonte 2020: De la Agenda Digital Municipal a la Gobernanza de la Ciudad-Región Vasca Inteligente*. Zumaia: Translokal. doi:10.13140/RG.2.2.10932.76161.
- CALZADA, Igor (2018a). Algorithmic nations: Towards the techno-political (basque) city-region, in *Territories: A Trans-Cultural Journal of Regional Studies*, 1(1), 1-22. doi:territories_41508
- CALZADA, Igor (2018b). ‘Algorithmic nations’: Seeing like a city-regional and techno-political conceptual assemblage, in *Regional Studies, Regional Science*, 5(1), 267-289. doi:10.1080/21681376.2018.1507754
- CALZADA, Igor (2018c). *Auzolabs: Recomendaciones Estratégicas desde la Innovación Social para la Regeneración Urbana Integral mediante Barrios-Laboratorio (Urban Living Labs) – Neighbourhood Labs: Neighbourhood Laboratories for the Urban Integral Regeneration through Strategic Recommendations from the Social Innovation*. Zumaia: Translokal. doi:10.13140/RG.2.2.36311.11686.
- CALZADA, Igor (2018d). “Deciphering Smart City Citizenship: The Techno-Politics of Data and Urban Co-operative Platforms”, in *Re-*

- vista *International de Estudios Vascos*, RIEV, 63(1-2), 42-81.
doi:10.13140/RG.2.2.24498.35524/6
- CALZADA, Igor (2018e). "Local Entrepreneurship through a Multistakeholders' Tourism Living Lab in the Post-Violence/Peripheral Era in the Basque Country", in *Regional Science Policy & Practice*, 11(3), 451-466. doi:10.1111/rsp3.12130
- CALZADA, Igor (2019a). "Technological Sovereignty: Protecting Citizens' Digital Rights in the AI-driven and Post-GDPR Algorithmic and City-Regional European Realm", in *Regions eZine*(4). doi:10.1080/13673882.2018.00001038
- CALZADA, Igor (2019b). "Data Spaces and Democracy", in *RSA Journal*(2), 40-43. doi:10.13140/RG.2.2.35392/89601/1
- CALZADA, Igor (2020a). "Will COVID-19 Be the End of the Global Citizen?" https://apolitical.co/en/solution_article/will-covid-19-be-the-end-of-the-global-citizen [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- CALZADA, Igor (2020b). "Tekno Politika" <https://www.sarean.eus/teknopolitika/> [Azken kontsulta: 2020-05-27]
- CALZADA, Igor eta ALMIRALL, Esteve (2019). *Barcelona's Grassroots-led Urban Experimentation: Deciphering the 'Data Commons' Policy Scheme*. Paper presented at the Data for Policy 2019, UCL-London.
- CALZADA, Igor eta ALMIRALL, Esteve (2020). "Data Ecosystems for Protecting European Citizens' Digital Rights", in *Transforming Government: People, Process and Policy*, 14(2). doi:10.1108/TG-03-2020-0047
- CALZADA, Igor eta BILDARRATZ, Jokin (2015). *Political Innovation: Constitutional change, self-government, the right to decide & independence*. Zumaia: Translokal. doi:10.13140/RG.2.2.13761.76645.
- CALZADA, Igor, CHAUTÓN, Adolfo, eta DI SIENA, Domenico (2013). *MacroMesoMicro: Systemic Territory Framework from the Perspective of Social Innovation*. ISBN:978-84-616-5217-4.
- CALZADA, Igor eta COBO, Cristobal (2015). "Unplugging: Deconstructing the Smart City", in *Journal of Urban Technology*, 22(1), 23-43. doi:10.1080/10630732.2014.971535
- CALZADA, Igor eta COWIE, Paul (2017). "Beyond Smart and Data-Driven City-Regions? Rethinking Stakeholder-Helices Strategies." *Regions Magazine*, 308(4), 25-28. doi:10.1080/13673882.2017.11958675
- CALZADA, Igor eta KEITH, Michael (2018). *Bridging European Urban Transformations Workshop Series 2016-2018*. ESRC. doi:10.13140/RG.2.2.32474.39365.
- CARRARA, Wendy, CHAN, Wae San, FISCHER, Sander, eta VAN STEENBERGEN, Eva (2015). *Creating Value through Open Data*. Brussels: European Commission. doi:10.2759/328101.

- CASADO DA ROCHA, Antonio eta CALZADA, Igor (2015). "Demos-Ethos: A Framework to Study the Icelandic and Basque Cases through Critical Social Innovation and Applied Ethics", in *Innovation*, 28(4), 425-442. doi:10.1080/13511610.2015.1089472
- CASTELLS, Manuel (2009). *The rise of the network society*. Oxford: Wiley-Backwell.
- CHRISTMANN, Gabriela B. (2020). "Introduction: Struggling with Innovations. Social Innovations and Conflicts in Urban Development and Planning", in *European Planning Studies*, 28(3), 423-433. doi:10.1080/09654313.2019.1639396
- COLLI, Francesca eta KERREMANS, Bart (2017). "Searching for Influence: Interest Groups and Social Movements in the European Union", in *Journal of European Integration*, 1-7. doi:10.1080/07036337.2018.1406882
- CONVERSI, Daniele eta MORENO, Luis (2020). "Clima y virus: Todo tiene sentido". <https://blogs.publico.es/otrasmiradas/30982/clima-y-virus-todo-tiene-sentido/> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- DENNIS, James eta HALL, Nina (2020). "Innovation and adaptation in advocacy organizations throughout the digital eras", in *Journal of Information Technology & Politics*, 17(2), 79-86. doi:10.1080/19331681.2020.1716913
- DIGITAL SOCIAL INNOVATION (2018). <https://digitalsocial.eu> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- DOMANSKI, Dmitri, HOWALDT, Jürgen, eta KALETKA, Christoph (2020). "A comprehensive concept of social innovation and its implications for the local context – on the growing importance of social innovation ecosystems and infrastructures", in *European Planning Studies*, 28(3), 454-474. doi:10.1080/09654313.2019.1639397
- ECHEVARRÍA, Javier (2008). "El Manual de Oslo y la Innovación Social" in *Arbor Ciencia, Pensamiento y Cultura* 184(732), 10. doi:10.3989/arbor.2008.i732.210
- EGIA, Lutxo (2020). "Una acción de Lutxo Egia hace 3 años marcó el camino del Euskaraldia" <https://www.eitb.eus/es/cultura/videos/detalle/6007875/video-una-accion-lutxo-egia-hace-3-anos-marco-camino-euskaraldia/> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- ENGELBRECHT, Hans-Jürgen (2018). "The (Social) Innovation – Subjective Well-being Nexus: Subjective Well-Being Impacts as an Additional Assessment Metric of Technological and Social Innovations", in *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, 31(3), 317-332. doi:10.1080/13511610.2017.1319262
- ENoLL (2017). www.openlivinglabs.eu [Azken kontsulta: 2020-03-27]

- EUROPEAN COMMISSION (2010). *Social Innovation Research in the European Union. Approaches, Findings and Future Directions*. https://ec.europa.eu/research/socialsciences/pdf/policy_reviews/social_innovation.pdf [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- EUROPEAN COMMISSION (2013a). *Guide to Social Innovation*. Brussels: European Commission.
- EUROPEAN COMMISSION. (2013b). *Social Innovation Research in the European Union: Approaches, Findings and Future Directions*. Luxembourg: Publications Office of the European Union.
- EUROPEAN COMMISSION (2020). *A European Strategy for Data*. Brussels: European Commission.
- EVANS, James, KARVONEN, Andrew, eta Raven, Rob (2016). *The experimental city*. London and New York: Routledge.
- FLORIDI, Luciano (2015). *The Online Manifesto: Being Human in a Hyper-connected Era*. Cham: Springer.
- FORESTER, John, KUITENBROUWER, Martien eta Laws, David (2019). "Enacting reflective and deliberative practices in action research" in *Policy Studies*, 1-20. doi:10.1080/01442872.2019.1618445
- GRIMM, Robert, FOX, Christopher, BAINES, Susan, eta ALBERTSON, Kevin (2013). "Social Innovation, An Answer to Contemporary Societal Challenges? Locating the Concept in Theory and Practice", in *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, 26(4), 436-455. doi:10.1080/13511610.2013.848163
- HARARI, Yuval N. (2018). *21 Lessons for the Century*. London: Vintage.
- HARDIN, Garrett. (1968). "The Tragedy of the Commons", in *Science*, 162(3859), 1243-1248.
- HARVEY, David. (2011). "The Future of the Commons", in *Radical History Review*, 109, 101-107.
- HEALES, Charlotte, HOGSON, Mary, eta RICH, Hannah (2017). *Humanity at Work: Mondragon, a Social Innovation Ecosystem Case Study*. London: The Young Foundation.
- HENDERSON, Hazel (1993). "Social Innovation and Citizen Movements", in *Futures*, 25(3), 322-338. doi:[https://doi.org/10.1016/0016-3287\(93\)90140-O](https://doi.org/10.1016/0016-3287(93)90140-O)
- HILLGREN, Pers-Anders, SERAVALLI, Anna, eta EMILSON, Anders (2011). "Prototyping and Infrastructuring in Design for Social Innovation", in *CoDesign*, 7(3-4), 169-183. doi:10.1080/15710882.2011.630474
- HPS, EUSKO JAURLARITZA (2010). *Gizarte Sareak eta Euskara 2.0*. [Argitaratu gabeko ikerketa]
- INNERARITY, Daniel (2016). *Governance in the New Global Disorder: Politics for a Post-Sovereign Society*. NYC: Columbia University Press.

- IOVINO, Ludovico, D'EMIDIO, Mattia, eta MODICA, Marco (2020). "Creating an Holistic Emergency Alert Management Platform", in *Journal of Urban Technology*, 1-18. doi:10.1080/10630732.2020.1717280
- KEITH, Michael eta CALZADA, Igor (2018). *Back to the "urban commons"? Social innovation through new co-operative forms in europe*. <http://www.urbantransformations.ox.ac.uk/blog/2018/back-to-the-urban-commons-social-innovation-through-new-co-operative-forms-in-europe/> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- KITCHIN, Rob (2014). "The Real-Time City? Big Data and Smart Urbanism", in *GeoJournal*, 79(1), 1-14. doi:10.1007/s10708-013-9516-8
- KREISCHE, Franziska, PETERS, Stephan, STOKES, Matt, eta CRETU, Corina (2018). *The Future of the Open Movement for DSI*. <https://digitalsocial.eu/blog/133/the-future-of-the-open-movement-for-digital-social-innovation> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- LUPTON, Deborah. (2020). *Social Research for a COVID and Post-COVID World. An Initial Agenda*. <https://medium.com/@deborahalupton/social-research-for-a-covid-and-post-covid-world-an-initial-agenda-796868f1fb0e> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- LUXAN, Marta, ORMAZABAL, Andere, TXURRUKA, Unai, eta DAÑOBEITIA, Olatz (2014). "Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta" in *Jakin*(203).
- MACINTYRE, Amber (2020). "Adaption to Data-Driven Practices in Civil Society Organizations: A Case Study of Amnesty International" in *Journal of Information Technology & Politics*, 17(2), 161-173. doi:10.1080/19331681.2019.1710645
- MARKO, Juan Inazio (2014). "Iruzkina. Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabidez apunteak." in *RIEV*, 59(2), 518-544.
- MARTINEZ DE LUNA, Iñaki (2013). "Euskarak duen 'framing berri' baten premia asetzeko proposamena", in *Bat*, 86(1), 13-84.
- MARTÍNEZ MORENO, Rubén (2018). *Innovación social y gobernanza multinivel. Cambio en las relaciones de poder y gestión del conflicto: Los casos de barcelona y madrid (1979-2015)*. Universitat Autònoma de Barcelona, Barcelona.
- MATEI, Ani eta ANTONIE, Catalina (2015). "Complexity Theory and the Development of the Social Innovation", in *Procedia - Social and Behavioral Sciences*, 185, 61-66. doi:<https://doi.org/10.1016/j.sbspro.2015.03.371>
- MIHCI, Hakan (2019). "Is Measuring Social Innovation a Mission Impossible?", in *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, 1-31. doi:10.1080/13511610.2019.1705149

- MOULAERT, Frank eta MACCALLUM, Diana (2019). *Advanced Introduction to Social Innovation*. Cheltenham: Edward Elgar.
- MOULAERT, Frank, MARTINELLI, Flavia, GONZÁLEZ, Sara, eta SWYNGEDOUW, Erik (2007). "Introduction: Social Innovation and Governance in European Cities" in *European urban and regional studies*, 14(3), 195-209. doi:10.1177/0969776407077737
- MOULAERT, Frank eta MEHMOOD, Abid (2020). "Towards a Social Innovation (SI) Based Epistemology in Local Development Analysis: Lessons from Twenty Years of EU Research", in *European Planning Studies*, 28(3), 434-453. doi:10.1080/09654313.2019.1639401
- MOULAERT, Frank, MEHMOOD, Abid, MACCALLUM, Diana eta LEUBOLT, Bernhard (2017). *Social Innovation as a Trigger for Transformations: The Role of Research*. Brussels: European Commission.
- MULGAN, Geoff (2006). "The Process of Social Innovation", in *Innovations: Technology, Governance, Globalization*, 1(2), 145-162. doi:10.1162/itgg.2006.1.2.145
- NICHOLLS, Alex, SIMON, Julie eta GABRIEL Madeleine (2015). *New Frontiers in Social Innovation Research*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.
- NOVAK, Maja (2019). *8 Social Innovation Movements that Went Viral*. <http://www.socialinnovationacademy.eu/8-social-innovation-movements-that-went-viral/> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- ODRIOZOLA, Joxe Manuel (2011). *Estatu Etnozidaren Kontra edo Jatorrizko Hitzun Herriak Nola, Zergatik eta Nork Arrozten Dituen*. Donostia: Elkar.
- OSTROM, Elinor (1990). *Governing the Commons: The Evolution of Institutions for Collective Action*. Cambridge, UK: Cambridge University Press.
- PEL, Bonno, WITTMAYER, Julia, DORLAND, Jens, and SOGAARD JORGENSEN, Michael (2019). "Unpacking the Social Innovation Ecosystem: An Empirically Grounded Typology of Empowering Network Constellations", in *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, 1-26. doi:10.1080/13511610.2019.1705147
- POPOV, Evgeny, STOFFERS, Jol, OMONOV, Zhoomart, eta VERETEN-NIKOVA, Anna (2017). "Social Innovation Development Modelling", in *International Journal of Economic Research*, 14(14), 364-381.
- POPPE, Florian eta DECKER, Reinhold (2018). "The Intermediary as an Institutional Entrepreneur: Institutional Change and Stability in Triple-Helix Cooperation", in *Triple Helix*, 5(1), 1-22. doi:10.1186/s40604-018-0063-7
- PRESKILL, Hallie eta BEER, Tanya (2012). *Evaluating Social Innovation*. Centre for Evaluation Innovation.
- PURCELL, Mark (2013). "To Inhabit Well: Counterhegemonic Movements and the Right to the City", in *Urban Geography*, 34(4), 560-574. doi:10.1080/02723638.2013.790638

- RABADJIEVA, Maria eta BUTZIN, Anna (2019). "Emergence and Diffusion of Social Innovation through Practice Fields", in *European Planning Studies*, 1-16. doi:10.1080/09654313.2019.1577362
- SABATO, Sebastiano, VANHERCKE, Bart, eta VERSCHRAEGEN, Gert (2017). "Connecting Entrepreneurship with Policy Experimentation? The EU Framework for Social Innovation", in *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, 30(2), 147-167. doi:10.1080/13511610.2017.1282308
- SCHUBERT, Cornelius (2018). "Social Innovation. A New Instrument of Social Change?" in A. W. Werner Rammert, Michael Hutter, Hubert Knoblauch (Ed.), *Innovation society today. Perspectives, fields, and cases* (pp. 371–391). Wiesbaden: Springer VS.
- SINGOCOM (2018). *Social Innovation Governance and Community Building*. <http://esdp-network.net/research-projects/singocom> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- SMITH, Adrian (2014). *Considering Social Innovation from a Social Movement Perspective*. <http://www.transitsocialinnovation.eu/blog/considering-social-innovation-from-a-social-movement-perspective> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2020). *Ciudadanía y Euskera: Claves y Procesos para la Activación*. www.soziolinguistika.eus/aktibazioa [Azken kontsulta: 2020-05-29]
- SUBIRATS, Joan (2020). *Normal y excepcional*. <https://ctxt.es/es/20200302/Firmas/31547/Joan-Subirats-coronavirus-normalidad-seguridad-pandemia-excepcionalidad.htm> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- SUBIRATS, Anna (2020). *Opening the Urban 'Black Box': The Role of the Local Context in the Mobilisation of Urban Movements*. European University Institute, Florence. <http://hdl.handle.net/1814/66669> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- SUI (2018). *Smart Cities, Social Innovation and Smart Urban Development*.
- TEPSIE. (2012). *Defining Social Innovation*. www.tepsie.eu [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- TERSTRIEP, Judith, REHFELD, Dieter, eta KLEVERBECK, Maria (2020). "Favourable Social Innovation Ecosystem(s)? – An Explorative Approach", in *European Planning Studies*, 1-25. doi:10.1080/09654313.2019.1708868
- UNCETA, Alfonso, CASTRO-SPILA, Javier eta GARCIA FONTI, Javier (2016). "Social Innovation Indicators", in *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, 29(2), 192-204. doi:10.1080/13511610.2015.1127137

- VADROT, Alice B. M. (2020). "Re-thinking the Conditions for Social Change and Innovation" in *Innovation: The European Journal of Social Science Research*, 33(1), 1-3. doi:10.1080/13511610.2020.1713455
- VAN DE BROECK, Pieter, MEHMOOD, Abid, PAIDAKAKI, Angeliki eta CONSTANZA, Parra (2019). *Social Innovation as Political Transformation Through for a Better World*. Cheltenham, UK and Northampton, MA, USA: Edward Elgar Publishing.
- VAN DIJCK, José (2014). "Datafication, Dataism and Dataveillance: Big Data between Scientific Paradigm and Ideology", in *Surveillance & Society*, 12(2), 197-208. doi:<https://doi.org/10.24908/ss.v12i2.4776>
- VOORBERG, William H., BEKKERS, Victor J. J. M. eta TUMMERS, Lars G. (2015). "A Systematic Review of Co-Creation and Co-Production: Embarking on the Social Innovation Journey", in *Public Management Review*, 17(9), 1333-1357. doi:10.1080/14719037.2014.930505
- WESTLEY, Frances, MCGOWAN, Katherine, eta TJÖRNBO, Ola (2017). *The Evolution of Social Innovation*. Cheltenham: Edward Elgar.
- WILLIAMS, Raymond (1983). *Keywords: A Vocabulary of Culture and Society*. New York: Oxford University Press.
- ZALBIDE, Mikel (2011). "Diglosiaren Purgatorioaz. Teoriatik Tiraka", in *Bat*, 79-80(2-3), 13-154.
- ZUBIAGA, Mario (2020). Crisis Viral. <https://www.naiz.eus/en/iriztia/articulos/crisis-viral> [Azken kontsulta: 2020-03-27]
- ZUBOFF, Shoshana (2019). *The Age of Surveillance Capitalism: The Fight for a Human Future at the New Frontier of Power*. London: Profile.